

...eta **kitto!**

706 zkia. 2010-1-22

ASTEKARIA

TOKIKOM



Belaunaldien arteko elkargunea



KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK


- Auzo komunitateen administrazioak
- Eltxebizitzak, garajeak, industrietan...
- Jaurerrietan dirulaguntzen tramitazioa

AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Asagurua

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**


**AUTO
ESCUELA**

CURSOS INTENSIVOS

**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR




BAZKIDEENTZAKO AURRE-SALMENTA BEREZIA

Urtarrilaren 29ra arte salgai, 6 eurotan ...eta kitto! Euskara Elkarteak: 10.00-14.00 eta 16.00-20.00 Urtarrilaren 30etik aurrera salgai, 6'50 eurotan El Tío Palancas (Juan Gisasola), Geltoki (T. Etxebarria) eta e&m argazki dendan (Urkizu)



BAZKIDE BAKOITZEKO 3 SARRERA SALDUKO DIRA
EZ DIRA SARRERAK GORDE EDO ERRESERBATUKO



**otsailak 26, barixakua
saioak: 17.00 eta 19.00**

**PuRritx Porrotx
MaRiNotots**

**otsailak 27, zapatua
saioak: 16.00 eta 18.30**



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

FRAILLE.- Frontoian edo trinketean orma biek egiten duten angeluan egoten den txokoa. "Frailian jotako pelotia, ezin izan eban errestau".

FRAILLE KATILLUA.- Katilu mota bat, normala baino handiagoa. "Fraille katilluan kafia eta esnia zopekin, haren barau haustia".

FRAILLIEN DOZENIA, HAMAIRU.- Neurria baino gehiago hartzeko (edo emateko) prest daudenei buruz esaten da. Fraileen dozena, hamabikoa izan beharrean, hamairukoa ei da. Fraile-katilua ere ohizkoa baino handiagoa izaten da. "Emoixozu apur bat gehixago, badakizu, fraillien dozenia hamairu".

ESKUTITZAK

EUSKARARI ERASORIK EZI EUSKARAZ BIZITZEKO... EGUNKARIA LIBREI

Zazpi urte igaro dira euskararen eta herri honen kontrako zentzugabeko erasotik, Madrilgo justiziaren indarrek Egunkaria itxi eta bere ordezkariak atxilotu eta torturatu zituztenetik. Herri honen euskaraz bizitzeko nahia zen delitua, euskarazko egunkari bakarra aurrera zihoala ikustea zen euren arazoa. Eta horrela, gezurraren gainean eraiki zuten akusazio osoa.

Euskarazko Egunkari bakarra itxita, hamaika adierazpen eta mobilizazio, milaka lagun Euskal Herriko kaleetan eta aldarri bakarra: Egunkaria aurrera! Donostiako olatua egun gutxira erasoaren kontra, euskaraz bizitzeko uholde-nahia.

Adierazpen askatasuna gainditu zuen erasoak. 1990ean euskarazko Euskal Herriko egunkari bakarra sortu zuen herriak, herriarentzat. Herri euskalduna berreraikitze bidean ekarpen ikaragarria. Berau itxiaraziz, herri hau menperatu nahi dutenek euren helburua lortzeko edozein bide erabiltzeko prest daudela erakutsi ziguten. Euskara jarri zuten asimilazio prozesuaren jomugan, hizkuntza galtzen duenak izaera galtzen duelako. Horregatik, 2003ko otsailaren 20an espainiar estatuak indarrez euskal hedabide bat ixtearekin batera, euskara bera eta euskaraz bizi nahi duen herria eraso zuen.

Hasi da epaiketa, eta laster helduko da orain zazpi urte hasitako prozesuaren amaiera. Euskara, euskal

kulturgintza, herri mugimendua, herri euskalduna daude jomugan. Hala ere, herri honek badu bere epaia, euskaraz bizi nahi du. Horregatik sortu zuen Egunkaria herriak. Egunero egindako ekarpenarekin egunkari Berria sortu zuen denbora gutxira, herri ekimenez. Sor dezala orain gure erantzunak babes-olatu Egunkariarentzat zein auziperatuentzat eta euskaraz bizitzeko olatu-grina herrian.

Badakigu herri euskalduna berreraikitze gure esku dauden tresna guztiak erabili behar ditugula, baita behar ditugun tresna guztiak eskuratzeko baldintzak sortu ere. Euskal hedabideak sortuz eta kontsumituz, euskarazko hedabideei lehentasuna emanez, euskaraz biziko den herriaren aldeko nahia handituko dugu, eta guztiok batera asimilazioaren aurreko harresian beste harri bat jartzea lortuko dugu.

Hori dela-eta, behar dugu Egunkaria libre munduan, euskaldunok ere libre behar dugulako izan Euskal Herria berreraikitze. Eta, bitartean, euskara lehenetsi behar dugu esparru eta maila guztietan, gutako bakoitzak euskarari lehentasuna eman behar dio, baina osatzen dugun herriak ere herri egiten gaituen hizkuntza lehenetsi behar du. Horregatik deia egiten dugu datorren urtarillaren 26an, arratsaldeko 19:30ean Untzagan egingo dugun kontzentziora.

EIBARKO EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

asteka HEMEROTEKA esaldiak

"Espainiak ezkutuko ekonomia oso aurreratu du. Zaila da jakitea zein dagoen benetan langabezia. Bertako estatistikak, lan merkatuari dagokionez, guztiz ulergaitzak dira. Espainiako ekonomia aztertu eta ezer ulertzen ez zuen gizajo baten historia kaleratu du prentsa britainiarrek... Langabetuen kopurua %20tik gora eta tabernak eta kaleak jendez beterik... Ez zitzaien buruan sartzen"

(Irwin Stelzer, ekonomialari)

"Orain dela 38 urte hasi ginetik aldatu egin dira umeak; lehen denbora luzeagoan ziren haur. Egun badirudi pailazoak haurrentzat bakarrik direla, baina nagusiek ere gustura ikusten dituzte. Haurrek badute konplexua: zortzi urte betetzean, uste dute pailazoak ez direla eurentzat; kontsumo indarrak gidatuta, adin horretan nerabezaroan sartzen direlako. Pailazoak gustatu arren, ez dute aitortu nahi"

(Jose Inazio Ansorena, Mirri pailazoal)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

SENDIAN PROGRAMA

Autozainketa, geure burua zaindu besteak zaintzeko" izenburuari jarraituta, Sendian programaren barruan, autozainketari buruzko ikastaroa antolatu dute, adineko ezinduek zaintzen dituztenendako. Ikastaroa Portalean, ikastaro gelan emango dute, otsailaren 2, 3, 4, 5 eta 8an, 15.00etatik 17.00etara. Izen-ematea doan da, baina eskaerak urtarrilaren 29rako aurkeztu beharko dituzte interesatuek Pegoran.

BERRIKUNTZA TAILERRA

Lea-Artibai eskualdeko Azaro Fundazioak gidatuta, berriz ere martxan ipini dute ekintzailetasun eta berrikuntzaren inguruko tailerra. Horren barruan 10 lagunendako urtebeteko kontratu bana eskaintzen dute. Informazio gehiago 946169172 telefonoan edo www.azaroafundazioa.com helbidean.

Enplegua sustatzeko 663.000 euro

UDALAREN AURREKONTUAN ENPLEGUA SUSTATZEKO

663.000 euroko partida bat egongo da eta horren bitartez aldi baterako 40 lan-kontratu sortzea bideratuko da Udalak dioenez. Krisi ekonomikoak sorturiko arazoak gutxitzeko sartu du Udalak partida hau aurrekontuetan. Horrela, alde nabaria dago iaz kontzeptu honen gainean utzi zen diruaren eta aurtengoaren artean (2009an 256.000 euro eta 2010ean 663.000).

Egitasmo honen gainean Udalak egingo dituen kontratazioak aldi baterakoak izango dira, sei hilabetekoak eta udal-departamentu ezberdinetan egon daitezkeen beharriaren arabera egingo dira.



422.000 euro gizarte-larrialdien laguntzarako

EUSKO JAURLARITZAK 422.000 EURO EMANGO DIZKIO EIBARRI GIZARTE-LARRIALDIKO LAGUNTZAK BETETZEKO.

Laguntza hauen kontzeptu tradizionalari dagokionez 207.000 euro emango ditu gobernauak, eta beste 215.000 euroak 'etxebizitzaren laguntza osagarria' deritzona betetzeko bidaliko ditu, lehengo laguntzetan alokairurako laguntza bezala sartuta zetorrena.

2009an Eusko Jaurlaritzak 350.000 euro bidali zituen



gizarte-larrialdiko laguntzarako, baina hasierako laguntza hori 619.000 eurotaraino igo zen antzemandako beharriaren arabera. Hala ere, Udalak kantitate hauek liki-

datzean, hau da, honelako laguntzak eskaintzen gastatu zuen dirua aztertzean, azken partida 446.000 eurotan geratu zen, aurtengo aurrekontuaren antzekoa (422.000euro).

3. maila konbinatua AEK euskaltegian

AZKEN URTEOTAN EUSKALTEGIETAKO IKASLEEN PROFILAK ASKO ALDATZEN DIBARDUELA IKUSI DUTE bertako arduradunek eta, AEK euskaltegian adierazi digutenez, "erronka handia gertatzen ari zaigu egoera berrirentzat egokiak izan daitezkeen erantzunak topatzea. Alde horretatik, aurrez aurreko saioak eta on-line uztartzen dituzten ikastaroek aukera zabala eskaintzen dute, taldekako lana eta auto-ikaskuntza batzen dituelako eta ezaugarri horietaz guztiez baliatu nahi du AEKren ikaskuntza konbinatuaren eskaintza".

Dagoeneko martxan daukate 3.mailarako eskaintza: "Azterketa eskuratzerazuzendutako 120 ordutako ikastaroa izango da, otsailaren 1ean

hasi eta ekainaren 18an amaituko dena. Astero aurrez aurreko saio bat izango da, lana berriz, on-line moduan egingo da horretarako bereziki atondu dugun ikastaroan. Lehen eskaintza honetan aurrez aurrekoak soilik bi hiriburutan egingo dira, Donostiako Irrintzi euskaltegian (Gros) eta Bilboko Indautxuko AEKn. Izen-ematea zabalik dago urtarrilaren 28ra arte eta 312 euroko kostua izango du". Informazio gehiago eskuratzeko e-gela@aek.org helbide elektronikora jo daiteke, Eibarko AEK euskaltegira joan edo deitu (943 201379 telefono zenbakia) edota zuzenean Indautxu (94 4413474) edo Irrintzi (943 327611) euskaltegiekin harremanetan jartzeko aukera dago.



Presoen aldeko ekimenen aurkezpena

MARTITZEN ARRATSALDEAN PRENTSAURREKOA EMAN ZUTEN ARRATE KULTUR ELKARTEAREN EGOITZAN,

Eibarren datozen egunotan euskal preso politikoen eskubideen alde aurrera eramango diren hainbat ekimenen berri emateko. Prentsaurrekoan azaldu zirenek datorren asteko asteburuan, hilaren 29, 30 eta 31n baraualdia egingo dutela aurreratu zuten, "presoa politikoen kartzelatan burutuko duten gose grebarekin bat eginez". Era berean, egun horietan Eibarren egingo diren hiru elkarretarazteetan parte hartzeko deia luzatu nahi diete herritarrei.



Zerbitzuak berritu eta osotu ditu Udalbusak. / EKHI BELAR

Udalbusaren eskaintza berria

**EIBARKO UDALBUSAK ES-
KAINZA BERRIA DIHARDU
ESKAINTZEN** astelehenaz geroztik, Eusko Trenak eta Udalak joan den abenduaren 18an sinatu zuten akordioak jasotakoari jarraituz. Horren arabera, Euskotrenek kudeatuko du Udalbus zerbitzua gure herrian eta, trukean, 157.575 euroko laguntza emango dio Udalak garraio enpresari. Zer-

bitzu horretarako kontzesioak 10 urteko iraupena izango du eta, hitzarmenean jasotakoaren arabera, Udalbusak eskaintzen dituen zerbitzuak berritu eta osotu egin dira. Ordutegi zehatzak, ibilbideak eta geltokiak zeintzuk diren jasotzeko 902543210 telefono zenbakira deitu daiteke edo, bestela, interneten www.euskotren.es webgunera jo.



Enpresen sorreran laguntzen

Debegesaren Enpresa Proiektu Berrien Laguntza Zerbitzuak 42 enpresa sortzen lagundu zuen 2009an, horietatik 19 Eibarren. Debegesaren bertan azaldutakoaren arabera, zerbitzu horrek ematen duen laguntzaz baliatuta sortu diren enpresek %86ko biziraupen tasa dute, ohikoa den %50eko biziraupena aise gaindituta.

Enpresen sorrera-prozesuan laguntzeko eskaintzen duten zerbitzuaz gain, Debegesak autoenplegu tailerrak eskainiko ditu aurtun. Tailerrak Debegesaren egoitzan bertan garatuko dira, martitzenero, eta ordutegi bi izango dira aukeran, bat goizez (11.00etan) eta beste bat arratsaldez (16.00etan). Ordubeteko saioak izango dira. Tailerren inguruko informazio zabalagoa nahi izanez gero, 943820110 telefonora deitu, ekintzaile@debegesa.com helbidera idatzi edo www.debegesa.com/empresadadores webgunera jo daiteke.

anzorik anzo



Arrateko udalekurako proposamena

Astelehen arratsaldean udal aurrekontuaren zirriborroa onartzeko plenoa egingo da udaletxean eta, horren harira, Ezker Batua-Aralar koalizioak hainbat proposamen aurkeztu ditu, zirriborroari egindako zuzenketekin batera. Atzo prentsari azaldutakoaren artean aipamen berezia merezi du Arrateko udalekuari erabilera berria emateko asmoarekin proposatutako proiektuak. Ingurumen Zientzietan lizentziatutako Igor Aldalur eta Esther Cuencak landutako txostenak koalizioaren proposamenaren ezaugarri nagusiak laburbiltzen ditu: *“Gaur egun erabili barik dagoen Arrateko udalekuari irtenbiderik ematen ez diotela ikusita, gure proposamena aztertzea eskatzen dugu: Eibarrerako ez ezik, Debabarrena osoari zerbitzua emango liokeen interpretazio zentrua martxan ipintzeko aukera polita dagoela uste dugu”*. Proposamen horri enplegurako estatu-fondoetarako proiektuen artean tokia egitea nahiko lukete koalizioa kideek. Horrez gain, aurrekontuaren zirriborroari zuzenketa osotasunean aurkeztuko diote, hainbat punturen inguruko zuzenketen zerrendarekin batera.

eibar kaleka

Azitain Bide

Azitaingo Andra Mariaren basiliza, aldameneko jatetxea, inguruko etxeak eta lantegi txikiak hartzen ditu Azitain Bide kaleak. Bizilagun eta pegora gutxi izanda ere, garrantzi handiko ondarea dago bertan: XIV. mende inguruko Kristoren irudia, gurutzean eta bizar barik. Munduan ezaugarri horiek dituzten beste 3 irudi baino ez dira ezagutzen.

Pegora kopurua: 6. Erroldatutakoak: 27.



asteko

432

datua

erosketa-karro oparituko ditu El Corte Inglés-eko supermermerkatuak otsailaren 3ra arte martxan izango den kanpainan, egunean 24, ordu erdioro karro bana. Karro bakoitzean Aliada etxeko markako 42 produktu daude. Kutxetako batean alarmak jotzen duenean ordaintzen dagoenarentzat da saria.

CMEko langileek Jose Mari Zalbidegoitiari

ITZIARKO CME ENPRESAKO LANGILEEK JOSE MARI ZALBIDEGOITIA 'TALDE Capital de Riesgo, S.A.', Euskadi Buru Batzarreko finantza eremuko buru eta Bilbao Bizkaia Kutxako kontseilariari zuzendutako idatzia igorri dute ...eta kitto!-ko erredakziora. Agirian, beharginek bizi duten egoeraren inguruko salaketa jaso dute. Besteak beste, azken zazpi nominak jaso gabe daudela azaltzen dute. Euren berbetan, "TALDE zen CMEko akziodun nagusia, baina duela hilabete gutxi TALDEK NEU ZEIT enpresa sortu zuen CMEn legalki agintzeko, garbi ateratzeko". Nahiz eta nominarik jaso ez, beharrera joaten jarraitzen dutela diote langileek eta, konponbiderik eman ezean, euren egoeraren berri "behar den tokian" emateko prest daude.

ABC-koak greba mugagabeen

GREBA MUGAGABEA DIHARDU GARATZEN ABC (ARIZAGA, BASTARRICA Y CÍA) LANTEGIAK, beharginen batzordeak urtarrilaren 7an egindako bileran hala erabakita eta "lanpostuei eutsiko zaiela bermatzeko helburu baka-rrarekin". Hala ere, astelehen honetan bertan enpresaren erantzuna jaso dute, "zazpi lankide kalera bota dituzte, inolako irizpiderik gabe, eta greba-deialdia bertan behera ez lagatzekotan jende gehiago kaleratuko dutela mehatxua eginez".

7 lagun kalera

Horren aurrean, hilaren 13an beharginen batzordeak beste



Atzo goizean ateratako argazkian, grebalariak enpresa sarreraren aurrean. / EKHI BELAR

bilera bat egin eta greba deialdia berretsi egin zuen, honako helburuak finkatuta: kaleratutako beharginak berriz ere onartzea, lanpostuei eustea,

erregulazio espediente atzera botatzea eta aurrejubilazioak aurrera eramatea (69 urteko beharginak lanean dihardue). Egoera horren aurrean, grebarekin bat egitea erabaki duten hainbat langile Azitaingo industrialdean, enpresa parean akanpatuta daude. Biharko, berriz, manifestazioa deitu dute, 12.00etarako, Untzagatik hasita. Bestalde, Ezker Batua-Aralar koalizioak idatziz adierazi du beharginekiko elkartasuna eta herritar guztiei biharko manifestazioan parte hartzeko dei egin nahi die.



Osakidetza, sendagile gehiagoren premian

BADIRA HILABETE BATZUK OSAKIDETZAK BEHAR DITUENAK BAINO SENDAGILE GUTXIAGOREKIN BEHARREAN DIHARDUELA, sendagileek eurek behin baino gehiagotan salatu duten moduan eta egoeraren larritasuna oso agerian geratu da Eibarren bertan, Juan Sánchez Vallejo sendagileen sindikatuko ordezkariak azaldu digunez: "Arazoa ez da orain sortu, hilabeteotan bizi den joerari erantzuten dio. Oro har, eta hainbat arrazoi bitarteko, Debarrean eta, beraz, Eibarren, familia-medikuak eta pediatrik falta dira eta premia hori oraindik nabariagoa da jai egunak ailegatzen diren bakoitzean". Sánchez Vallejok dioenez, azken urteotan medikuntza-ikasleen kopuruak behera egin du eta Osakidetza zuzendaritzak "hutsik dauden plaza guztiak betetzeko beharrean diharduela" dioen arren, sendagileen ordezkariak uste du maiatzetik hona irtenbideren bat bilatzeko aukera izan dutela eta "geldotasuna" egotzi dio administrazioari. Konponbideren bat aurkitu ezean, Gabonetan pediatriarekin gertatu-

tako egoera edo antzerakoak errepikatuko diren beldur dira: "Abenduaren 28an pediatria bakarra egon zen beharrean Eibarren, 3.000 umerentzat, eta 75 kontsulta bata bestearen atzetik atenditu ondoren berak hartu behar izan zuen baja, estresak jota". Osakidetza sendagileen portzentaia oso handia urteetan aurrera doa eta horiek jubilatzen doazen neurrian sendagile berriak kontratatzen ez badituzte "egoera jasangaitza" bihurtuko dela salatu dute.



Gabonetan jendiaren laguntzeko sena piztu egitten da, batez be hedabide eta erakundietatik egitten dan kanpaiñengaittik. Oñ, Haitiko lurrikararen ondorioz be, jende askok elkartasuna erakutsi dau biktimen aurrian. Munduan, halanda be, egunero gertatzen dira laguntzia biharra daken hondamendixak

Herrialde azpigaratuekin solidarixuak gara?



JOSUNE IRIONDO
39 urte
hezitzaillia

Neri begittantzen jata bagarala solidarixuak, normalian bai behintzat. Halanda be, izan leike gaur egungo egoeria dala-eta, krisi ekonomikuakin eta halakuekin, gure buruari gehixago begiraten detsagula, baiña uste dot orokorrian bagarala solidarixuak.




KARIM ADOUZI
34 urte
bihargiña

Bai. Haitin zalantza barik lagundu bihar da, ahal dan gehixen. Gertatutako hondamendixak alde ona euki leike, oin zerotik sortuko dabelako dana, II. Mundu Gerran Marschall Planarekin moduan. Odola eta heriotza ikusi bihar dogu laguntzeko eta damutu egitten gara aurretik ez dogulako egin.

BEGOÑA MENDIZABAL
75 urte
etxeoandria

Baietz begittantzen jata. Uste dot hamenguak solidarixuak garala eta bestiak hemenguak moduko solidarixuak izan ezkeru, gauzak beste modu batian juango ziran. Gaiñera, Haitiko kasuan modokuetan begittantzen jata danak garala solidarixuak.



MIGUEL LÓPEZ
63 urte
jubilaua

Haitiko lurrikararen moduko gertakizun honek kanpora etaratzen dabe gure sentsibildadia, baiña begittantzen jata egunerokuan gauzia bestelakua dala. Uste dot jendia bere gauzetan egoten dala orokorrian eta ez dala holako gauzetaz arduratzen, bakarrik hondamendixak gertatzian.



Optica Beituja
OPTICA BEITUJA - JULLIAN ETXEBERRIA, 13
20600 EIBAR - 943 74 02 90
(Bistak aurro telefonoz hitzartuko dira)

Ondo mitzun habete biltzeak

Amplifon-ek, entzumen-konponbideetako munduko liderrak, honakoa eskaintzen ditu:

- Entzumen-zaterketa doan
- Probetu audifonak doan 30 eguner
- 3620ko deskontua edozein audifono erosterakoan
- Gainera, araziltzaile izanda, zure audifonoaren zaterketa doan egin eta pila pakete bat oparituko dizugu.

EGOITZA NAGUSIA
Bilburieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Irrosketa laber
Egitekeren (Signo poligonoz)
Partikular, mita eta aseguru enosi zerbitzuak
Koroak - Eskelak - Urteurrenko eskelak
Euskal Herri osoko ospitaleen hartzen 20 lugu
Nazio eta Nazioarteko trilogioak

Mugica Ehorzketa
Ehorzketa laber

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Joan den abenduaz geroztik. Euskal Herriko herriz herriko aldizkari eta egunkari irakurrienen web orrialde berri bat sortu dute: *www.tokikom.com*. Topagunea euskara elkarteen federazioko kide diren hedabideak dira, urteetako esperientzia eta lanari esker, bakoitza bere eremuan lider izatera iritsi direnak. Tartean, ...eta kitto! dago.

www.tokikom.com

Herriz herriko hedabide irakurrienen web orrialde berri bat sortu dute



TOKIAN TOKIKO 20 HEDABIDE IRAKURRIENEK, bat egin, eta interneten orrialde berria sortu dute, *www.tokikom.com*. Web orrialde horretan, irakurleak herriz herriko informazioa irakurriko du; informazio osoa eta momentukoa, herri horietako aldizkari eta egunkariak ematen dutena.

Web orrialde berri hau sortu dutenak dira, Tokikom taldea osatzen duten hedabideak (tartean, ...eta kitto!). Denak euskerazko hedabideak dira, eta Topagunea euskara elkarteen federazioko kide dira guztiak.

20 hedabide, ezaugarri berdinak

Tokikom.com 20 hedabideren artean sortu dute, eta laster gehiago izatea espero dute, Topaguneako hedabide guztiak ez baitaude, oraindik, orrialde honetan. Aldizkari eta egunkari hauek badituzte ezaugarri jakin batzuk: informazio lokala edo bailarakoa eskaintzen dute, euskaraz, modu errazean, eta berak dira irakurrienen, norbere eremuan. Irakurle gehien onarpena dute, herrian erabat txertatuak daude, eta hala diote azken urteetan egin diren azterketa guztiak (Aztiker, Iker-talde, CIES...).

Alderdi eta erakundeen babesa daukate, informazio erabat plurala eskaintzen dutelako, eta euskerazko hedabideak izanagatik, erdal komunitateak ere irakurtzen du (zenbait etxetan sartzen den euskerazko produktu bakarra dira, hedabideok).

Herrietako informazioa, momentuan

Tokikom web guneak, herriz-herriko informazioa du oinarri. Hedabideek euren web orrialdeetan publikatzen dituzten albisteak, momentu berean argiratuko dira *www.tokikom.com* helbidean. Horrela, web orrialdera sartzen den irakurleak, berari interesatzen zaion herri edo eskualdeko informazio eguneratua izango du, eskuragai.

tokom.com

herriko irakurrienak, berriak, web orrialdeetan

Tokikom.com, beste web orrialdeetan

Tokikom web orrialdean argitaratzen den guztiak, bestalde, tokian-tokiko hedabideen web orrialdeetan ere bere lekua izango du. Horretarako, hedabide horiek web orrian atal bat izango dute, Tokikom.com izenekoa, eta bertan, automatikoki eguneratuko da Tokikom.com-eko informazioa.

Publizitate eskaintza bateratua, 220.000 irakurleko merkatua

Tokikomeko aldizkari eta egunkariak publizitate merkatu handia daukate, eta euren tokian tokiko informazioa, tarifak, eta baldintzak, web orrialde berrian izango dituzte, bezeroaren eskura.

Horrez gain, publizitate eskaintza bateratua ere eskainiko da. Guztira 220.000 irakurle dituzte hedabideok, oso interesgarria eta eraginkorra izan daitekeen merkatua, herri edo eskualde jakin batetik urrunago iritsi nahi duen edozein bezerorentzat.

Komunikabideak ezagutu

Tokikom.com helbidera sartzen denak aukera dauka hedabide bakoitzari buruzko informazioa lortzeko. Horretarako nahikoa du, berak nahi duen herri edo eskualdearen gainean klik egitea, eta hedabideari buruzko informazioa jasoko du: datuak, kontaktuak, harremana...

Honakoak dira Tokikom osatzen duten aldizkari eta egunkariak: **...eta kitto! (Eibar)**, **Aikor (Txorierri)**, **Aiurri Astekaria (Beterri-Buruntza)**, **Aiurri hamaboskaria (Beterri-Aitzondo)**, **Anboto (Durangaldea)**, **Astelenekoko Goienkaria (Debagoiena)**, **Barren (Elgoibar)**, **Begitu (Arratia)**, **Berton (Mahatserria)**, **Drogeteniturri (Ermua, Mallabia)**, **Goienkaria (Debagoiena)**, **Guaixe (Sakana)**, **Hernaniko Kronika (Hernani)**, **Karkara (Aia, Orio)**, **Otamotz (Urretxu-Zumarraga)**, **Pil-Pilean (Soraluze)**, **Prest (Deustualdea)**, **Ttipi-Ttapa (Baztan-Bidasoa-Malerreka)**, **Txintxarri (Lasarte-Oria)** eta **UK (Uribe Kosta)**.

Guztira 20 hedabidek sortu dute www.tokikom.com, aldizkari eta egunkari. Herri edo eskualdeetako hedabideak dira, eta denen artean, 220.000 irakurle dituzte.

Hedabide hauen ezaugarri komunak: informazio lokala eskaintzen dute, euskeraz, modu errazean, eta berak dira irakurrienak, norbere eremuan.



Nagusixak eta gaztiak bat egingo dabe Txaltxa Zelaixan

Datorren astian, hillaen 29xan, Txaltxa Zelaiko parkia generaziño diferentia batzeko gune bihurtuko dabe, oiñ arte sekula egiñ ez daben ekitaldixan. Gaztiekin biharrian daguazen kale-hezitzaillae bixak bultzatuta eta Biztu jubilaue alkartia batzen dittuan koordinadoriarekin alkarlanian, 17.00etatik aurrera jolas tradizionalak, mota diferentietako dantzak eta bestelako ekitaldixak garatuko dittue, ordu pare batez besterik ez bada be Txaltxa Zelaixa *"belaunaldixen arteko alkargunia"* billakatzeko asmuari jarraituta.

Astegunetan Argatxan

Udaleko Gizartekintza saillak eskintzen dittuan zerbitzuetako bat da kale-hezitzaillena: 1997xaz geroztik martxan dagan programa horren arduria Gorka Tagle eta Itziar Gorostidi gaztiak dake azken hiru urtitan. Lokala Ipuruia aldian, Argatxan dake, sasoi batian Noche tabernia hartu eban lokal berian eta hantxe egoten dira egunero, astelehenetik barixakura, gaztiekin eskola orduetatik kanpo biharrian jarduteko gertu. Eta hantxe ez daguazen bittartian, izenari ohore eginda kalia gora eta behera ibiltzen dira, gaztiak egoten diran tokixetan.



Karmen Arzuaga, Gorka Tagle eta Itziar Gorostidi.

Urte osuan hamaika jarduera antolatu eta lantzen dittue kale-hezitzaillak, baiña datorren asterako preparau dabena esperientzia barrixa izango da eurrendako eta baita euren proposamenari baietza emotia erabagi eban Biztu jubilaue koordinadoreko nagusixendako. Karmen Arzuaga Biztuko ordezkariak ilusiñuarekin begiraten detsa barixakuko zitari eta, azaldu deskun moduan, *"gaztiak gurekin batera zeozer antolatzeko ideiarekin etorri ziranian ideia politta begittandu jakun, pentsatzen dogu posible dala lehelengo begirada batian kontrarixio modura ikusi leikia-zela talde bixak alkarrekin zeozer egittia, baiña hori ez dala horrela erakutsi nahi detsagu jendiari. Arratsaldian Txaltxa Zelaixan egongo gara danak alka-rrekin eta, jakiña, nahi daben jende guztia ongiatorrixa izango da"*.

Alkargune modura Txaltxa Zelaixa aukeratzia ez da kasualidadia izan, kale-hezitzaillak kontau deskuen modura: *"Han bertan herriko jubilatue etxe haundixenetakua dago eta Txaltxa Zelaixan, barriz, egunero juntatzen dira gazte mordua. Gauzak holan izanda, kolektibo bixen arteko hartuemonu egunerokua da, espazio fisiko bera alkarrekin, batera*

**ETXEBIZITZA
ADOSATUAK**

Tel. 943 76 97 97

Prezio Ezin Hobeak: **249.210** eurotik hasita
www.inmokorosti.com

ERAIKUNTZA
AMAITUA

Lehen mailako
materialekin
egindakoak

**SALGAI
ELGETAN**

Ugaldea poligonoa, 11. Pabilloia 20170 USURBIL



**Bulego altzariak
eta materiala**

PAPERDENDA

Tel. 943 365892
Faxa. 943 371686
Mobila. 687 828590
fatima@manpel.com
www.manpel.com

erabilli bihar daben momentutik, horrek dakarren guztia-
rekin. Barixakuko ekitaldixa-
rekin espazio bera arazo barik
konpartitzeko aukeria bada-
guala erakutsi nahi dogu, talde
bixen arteko alkar-ezagutza
bultzatziarekin batera”.

Pasodobliak eta break-dance

Biztuko ordezkariak es-
plikau deskunez, “gure alkar-
teko kidiak gure jaialdixetan
egitten dittugun jokuak egingo
dittue: karta-jokuan jardun,
igel-toka eta horrelakuak. Ho-
rrez gain, pasodobliak dantza-
tzeko asmua badake batzuk
eta koreografixaren bat edo
beste be prestatzen dihardue”.

Kale-hezitzailliekin jaialdixa-

ren antolaketan biharrian da-
guazen gaztiak, barriz, urtian
zihar euren artian erabiltzen
dittuen mahai-jokuak eruango
dittue eta ping-pong mahaixak
eta horrelakuak preparauko
dittue. Dantzan be egingo
dabe, baiña eurak menpe-
ratzen daben estiluari jarrai-
tuta: break-dance eta antzera-
ko erritmuak aukeratu dittue.
Eta edozein adinian gustora
hartzten dan txokolate-jana-
rekin biribilduko dabe bari-
xakuko ekitaldixa.

Eskola orduetatik kanpo

Kale-hezitzailliak 11 eta 17
urte bittarteko gaztiekin jar-
duten dabe urte osuan, “batez
be aisialdixarekin lotutako klase

guztietako aktibidatiekin. Biha-
rrian hasi giñanetik hona kua-
drilla batzurendako ezagunak
bihurtu gara eta, edozelan be,
talde barrixak topatzeko, kon-
taktuak egitteko kale-lanarekin
aurrera segitzen dogu, sosiguz-
sosiguz eta gure teknikak erabi-
llita gaztiengana modu natu-
ralian gerturatzia lortu arte.
Honezkeru ezagutzen dittugu
gaztiak euren aisialdixan alkar-
tzeko nahixago izaten dittuen
tokixak, baiña horrek ez dau
esan nahi momentu puntual
batzuetan beste tokiren batera
juaten ez garenik”.

Euren burua agente-sozial
modura ikusten dabe gazte bi-
xak eta astebarruan, eskola or-
duetatik kanpo gaztiekin biha-

rrian jarduteko ahalegiña egi-
tten dabe, “gaztiekin kontak-
tuan duguaz beste taldiekin
alkarlana billatzen. Gure jar-
duerak oso esparru zabala
hartzten dabe: rokodromora
juan geinke, lokalian marraz-
kixak egiñ, Elgetara oiñez
igo... baiña edozer egitten
dogula be, danak daka bere
izateko arrazoia, egitten di-
ttugun gauza guztiak helburu
bat lortzera bideratuta doiaz”.

Ondo moldatu biharra

Gaur egunian gaztien gai-
ñian toki askotan emoten
daben irudixa guztiz erreala ez
dala pentsatzen dabe bai kale-
hezitzailliak zein Biztuko or-
dezkariak: “Edade guztietan
denetariko jendia topau gein-
ke, tolerantzia faltia edade
guztietan dago. Natural juanez
gero, danon artian ondo ez
moldatzeko arrazoirik ez dago,
geu be gaztiak izan gara eta
kalian jolasten genduan. Es-
pazio bat dakagu danondako
eta bakotxak gure aldetik ipiñi
biharko dogu ahalik eta on-
duen eruateko”. Eta bari-
xakukua hori lortzeko lehelen-
go pausua izan leike.




Iaz kale-hezitzaillien biharra ezagutzera emoteko beste jaialdi bat antolau eben
Txaltxa-Zelaixan, baiña bakarrik gaztiekin.

Asteartero Eibarreko alkatiak HAMAIIKA BERBA
Irratsaloan orantzungo dizu, eguardiko
12,30etan.
Zure kezka, proposamena, zalantza bidali
helbide honetara: eibar@herri-irratia.com
SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua)
5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz
943 82 08 44 zenbakira.

90.7 Fm

TEEN-
AJEA



UniEncounterren barruan Counter Strike lehiaketa egingo da. Aipatu, gainera, jokalariai UNK Ermuan duten egoitzan zehar ibiliko direla birtualki, zentroaren mapeatu birtuala egin dutelako aurretik lehiaketa batean. Beraz, UNlan zehar tiroka ibiltzeko aukera eskainiko da, birtualki noski.

ALESANDER ROBLEÑO,
UniEncounter-eko antolatzailea:

“Jokoa, ezaguna izateaz gain, azkar jokatzekoa da”

- Zer da antolatu duzuen Counter Strike jokoaren gainean?

Hasteko, esan beharra dago Counter Strike: Source lehen pertsonan egiten den akziozko joko taktikoa dela. Horrela, UniEncountererako, taldekako lehiaketa antolatu dugu aipatutako joko horren gainean.

- Nolako izango da prestatutako lehiaketa?

Edozeinek har dezake parte; hau da, bertan agertzearekin nahikoa izango da. Bost laguneko taldeak egingo dira eta ez da ezer ordaindu behar. Talde bi egongo dira: terroristak eta antiterroristak. Terroristen helburua zonalde zehatbat bonbardatzea izango da, eta antiterroristena hori ekiditea edo etsaiekin akabatzea. Sariei dagokienez, bestetik, garaileak 300 euro eskuratuko ditu eta bigarrenak 100.

- Zenbat lagunek eman dute izena?

Izen-ematea lehiaketa egu-

nean bertan egingo da; baina nahi duenak bere izena aurrez eman dezake iesunibhi.com/uniee webgunean.

- Nolako lana egin duzue antolaketan?

Antolakuntzan lagun asko ibili gara, ekintzak ere asko antolatu direlako. Nire kasuan, hainbat talde edo ekipo prestatu eta konfiguratzeari arduratu naiz zerbitzari bezala jarduteko, eta hori da, prezeski, alde nekeena. Bestetik, jokalariai erabiliko dituzten ekipoak prest laga behar dira, eta horien eta zerbitzariaren arteko lotura perfektua dela baieztatuz.

- Zergatik Counter Strike?

Oso joko ezaguna delako eta oso azkar jokatzekoa. Ekintza jokoa ezagutzera eman eta jendea erakartzeko pentsatua dago eta, horretarako, joko aproposa dela deritzogu. Interneten modu antolatuan oso jokatu denez, nolabaiteko maila duten jokalariai erakartzea errazagoa da.

AKONDIA



Albaitari Zentroa

Julen Arano / M^a Jesus Blanco

Bittor Sarasketa, 12

☎ 943 12 74 15



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1

Tel. 943 20 33 29



publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net

Inoiz baino lehenago
egingo da aurten
UniEncounter.

Ohiko datatik
hilabete bi aurreratu
da, eta otsailaren
2, 3, 5, 9 eta 10ean
egingo da.

Seigarren edizioa
izango du aurtengoa
UNI Eibar-Ermuak
antolatzen duen
informatika ekitaldi
honek, urtero gora
doan ekitaldiak.

Antolatzaileen berbetan,
"teknologia berrien za-
letasuna dugun guztiok
ikastetxeetako formakuntza
akademikotik urrun dagoen
modu ezberdin batez ikas eta
gozatzea da helburu orokorra".
Horrela, lehiaketak, hitzaldiak
eta informatikarekin zerikusia
duten hainbat ekintza anto-
latzen dira UNIn.

UniEncounterren aurkezpe-
na urtarrilaren 29an egingo da
Portalean 19.20etan. Bertan,
ekintza ezberdinak aurkezteaz
gain, Felix Morquecho kazetari
eta argazkilariak 'El carrito ha
muerto, viva el pixel' izeneko
hitzaldia egingo du. Helburua,

Informatika e-kitaldia UNIn

batipat, argazkilarien lana nola
aldatu den aurkeztea da, batez
ere prentsari dagokionean.

ANDROID berbagai

Jardunaldi profesionalak de-
ritzonak otsailaren 2an hasiko
dira ANDROIDi buruz berbetan
Ermuko UNIn. Gorka
Gueneaga UNiko informatika
irakasleak kontu hau azpima-
rratzen du aurtengo egita-
raueren artean. Horren gaine-
nean arituko da Tagzaniako
Dani Reguera 'Android, Goo-
gleren sistema eragilea mugikor-
rentzako' hitzaldiarekin
16.00etatik 17.20etara. Hau
amaitu eta hamar minututara,
Elurneteko Gorka Juliok 'An-
droide bat nire poltsikoa. An-
droideentzako aplikazioen
mundua' hitzaldia egingo du.
Ondoren, hizlari biek mahai
ingurua egingo da 19.00etatik
22.00etara.

Hurrengo egunean, hilaren
3an, irakaskuntza izango da
protagonista eta hiru hitzaldi
eskainiko dira Ermuko UNIn:
'Tecnologia berriak irakas-
kuntzan: Euskara 2.0' (16.00-
etatik 17.15etara), 'Marrazki
bizidunak, paperetik pantaila-



ra' (17.20etatik 18.30etara) eta
'Scratch: programación para
niños y niñas de 5 a 99 años'
(18.45etatik 20.00etara).

Politikarien mahai ingurua

Etorkizunera begira ipin-
tzeko aukera egongo da otsai-
laren 10ean Lobiano jaure-
gian, eta David Urzainki
Hezkuntza sailburuordeak,
Carlos Totorika Ermuko alka-
teak, Miguel De los Toyos
Eibarkoak eta Benjamin Atutxa
Eusko Jaurlaritzako parlamen-
tari eta Eibarko Udaleko zine-
gotziak mahai ingurua egingo
dute 'Portátiles en Educación,
Wifi y Fibra Óptica en nuestras
ciudades' izenburupean.

Jardunaldi profesionalekin
amaitzeko, segurtasunari bu-
ruz ("edo segurtasun ezari bu-

ruz", Gorka Guenegaren ber-
betan) egingo da berba UNIk
Ermuan duen egoitzan. 16.00-
etatik 17.15etara 'Aplicaciones
maliciosas actuales' hitzaldia
eskainiko da eta 17.30etatik
19.00etara 'Hacking ético'.

Jokatzeo aukera

Otsailaren 5a Jokoen Eguna
izango da. Guitar Hero eta
Counter Strike jokoetan parte
hartzeko aukera egongo da
16.00etatik 20.00etara. "Oso
pozik gaude aurten ere Guitar
Hero - Activision multinazio-
nala patrozinatzen gaituelako,
kamisetak, gitarrak, bateria...
bidaliko baititu", dio Guena-
gak. Garaileek 100 eurotik
gorako sariak jasoko dituzte
eta Djak egongo dira giroa
sortzen.

Pil-pilean Euskara Elkartean

MAKETATZAILA/ DISEINATZAILA BEHAR DA

Eskatzen dugu: In design, photoshop eta freehand programak ezagutzea.
Curriculumak jasotzeko azken eguna: Urtarrilaren 30a.



Pil-pilean Euskara Elkarteak

Errabal kalea 15, 1. 20590 Soraluez

Informazio gehiago: 943 75 13 04 zenbakian edo koordinazioa@pil-pilean.com (Arrate)

Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM

KATU

KALE

TABERNA

BIDEBARRIETA, 1

GREMIOEN GIDA

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99 100

ANTENAK

BALATZ S.L.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

AROTZAK

ulmar
S.L.



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

Obra gauzate proiektuak
Obra zibila eta eraikuntza
Obra osoa, giltza eskura
Gremioen koordinazioa
Behere erabilitazioa etxeetan
Etxeetako errehabilitazioa
Fatxadetako errehabilitazioa



ELGETA-KALE (Punto y Aparte-ren ondoan)
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799
Faxa. 943 530 392 ailaproiektuak@hotmail.com

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota
guztietako lanak

Ateak - Tarimak
Altzariak

Milaflores 10

Tfnoa. 943 20 55 55

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC

INSTALAZIO ENERGIKORAK
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA BARRUTIA
ARREBATUAK
ERREPERFORMAK

GARBIKETAK

Escudero

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13

Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

Aroztegia Ebanisteria
 Obra aroztegia

C **N**

Egiturak, barruko eta kanpoko atekak,
armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, aholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD
I T I A S L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

CRISTALUX

Completa

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

cristaluxe@gmail.com

Tfnoa. eta Faxa:

943 20 65 08

Mobila:

659 58 35 32

Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

SUKALDE ALTZARIAK

AROTZEGIA

Iparragirre Anaiaik

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaita eta
proiektu elektrikoak



Matsaria 2 - 7. pabilioia

Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27

www.electricidadguria.com

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615

Mobila 688 609 171

Barrena, 26 - 6. C



**TREJO
GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

*Garbiketa eta
mantenimendua*

- Barne apainketak
- Mantenimendu
eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11

Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK



IRAIZABAL
CONSEJO REGULADOR, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KLIMATIZAZIOA

klimatizazioa
energi berriztagarriak
proiektuak



santillán
klimadenda™

Txaltxa-Zelai, 14
Tel. 943 03 10 00 Faxa. 943 53 10 18
info@klimadenda.com www.klimadenda.com



- PINTURAK
- ESTUKOAK
- GOTELE
- PAPEREZTATZE
- LAMINATUAK
- KORTXOA
- MOKETA
- SINTASOLA

Arregui y Cortes, C.B.
Ego-Gain, 3 Tel. 943 20 34 09 Mob. 600 587 335

ITURGINTZA

INDA iturgintza



UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxe: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63 **Asua-Erreka, 2**

KRISTALAK



ACHA
Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}
eta faxa: 943 20 39 03



Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura
Goi mailako dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxe: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

SARRAILAGINTZA



GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalaketak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

PINTURAK



Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kokakazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

San Juan, 15
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24



PINTURAS
ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

Concha Velasco XXXIII. Antzerki Jardunaldietan

XXXIII. Antzerki Jardunaldiak otsailaren 20an hasiko dira eta antolatzaileek egitarauari azken zertzeladak ematen dihardute. Aurten protagonista nagusia Concha Velasco izango da eta Jose Maria Pouk zuzendurik 'La vida por delante' antzezlanean arituko da artista espainiarra. Bertan, Parisen haur utziak hartzen dituen Auschwitzetik irten den emagaldutxo-ohi judutar baten paperean sartzen da Velasco. Arrazakeria eta materialismoa salatzen dituen antzelana da Roman Garyren lan hau. Concha Velasco izango da izarra, baina Antzerki Jardunaldiek egitarau sakon eta aparta izango dute. Otsailaren 20an Coliseoan umeentzako ikuskizun batek emango badie hasiera, hurrengo egunean Ireneusz Crosny clownak hartuko du txanda. Ordutik martxoaren 26ra arte Eibar antzerkiaren hiriburua izango da.

Besteak beste, Daniel Freire eta Yoima Valdesez antzezturiko Mervado Libre, Txalo konpainiaren La huella (euskeraz ere), Patxo Telleria eta Mikel Martinezen Euskarazetamol, Fabrica de Teatro Imaginarioren Babiloniako loreak, Timbre 4 argentinaren La omisión de la familia Coleman, Hnuy Illa dantza-antzerkia (Iñaki Salvadorren musikaren eta Jon Mayaren dantzen uztarketa Joseba Sarrionandiaren olerkiekin). Hilabete geratzen da, beraz, teloa ireki eta antzerkiaren gozatu ahal izateko etenik gabe. Hilabeteko antzerki saioa.



ANTZERKIA

Dferia barik publiko faltagatik

DENIS ITXASO DONOSTIAKO UDALEKO KULTURA ZINEGOTZIAK ETA NORKA CHIAPUSO DFERIAKO ZUZENDARIAK

2010ean ez dela Dferia Arte Eszenikoen Azoka egingo esan zuten prentsaurrekoan. Etenaldiaren arrazoia publiko falta da, eta hasiera batean egintza uztailetik martxora pasa nahi bazen ere, azkenean bertan behera utzi da. Hala ere, Dferia barruan jaiotako Itinerarte bai egingo da eta ekoizpen iberamerikarrak eramango ditu Donostiara. Itinerarte urrian egingo litzateke eta datorren urteari begira antolatzaileek ez dakite berriro Dferia egingo den edo ez.




Literatura eta Musika Euskaraz Arriagan

BILBOKO ARRIAGA ANTZERKIA DA LITERATURA ETA MUSIKA EUSKARAZ ZIKLOAZ GOZATZEKO TOKIA. Hiru ekitaldi egingo dira bertan, euskal musika eta literatura uztartzen dituzten hiru ekitaldi. Zikloa hasi da, horrela, urtarrilaren 12an lehen saioa egin zen eta Xabier Lete idazlea eta Joxan Goikoetxea musikaria izan ziren protagonista. Hurrengo saioetan Bernardo Atxaga eta Juan Carlos Perez arituko dira martxoan, eta Itxaro Borda eta Pier Paul Berzaitz maiatzean.

ZINEA

Huhezinema Film Labor Jaialdia martxan

HIRUGARREN URTEZ MONDRAGON UNIBERTSITATEKO HUHEZIK HUHEZINEMA FILM LABOR JAIALDIA ANTOLATUKO DU. Apirilaren 27tik 29ra egingo da Debagoienako hainbat gunetan, nahiz eta Eskoriatzako fakultatea izango den epizentrotza. Parte hartu nahi izanez gero martxoaren 12a baino lehenago bidali behar izango dira lanak. Izena emateko, horrela, Huhezinemako webgunearan bitartez izen-emate orria jaitsi behar da, bete eta posta arruntez HUHEZINEMA 2010 Film Laburren jaialdia, HUHEZI –Dorleta auzoa, z/g, 20540 Eskoriatza. edo email- ez bidali. Sail Ofizialean 10 filmek hartuko dute parte eta 400 euro jasoko dituzte horregatik. Halaber, Epaimahai Ofizialak 400 euroko saria banatuko dizkio euskarazko Film Labor Onenari.



Ikus-entzunezko ekintzak Tabakaleran itxi aurretik

MAIATZEAN HASIKO DIRA TABAKALERA ERABERRITZEKO LANAK; hala ere, behin-behineko itxieraren aurretik FIPA, Clermont-Ferrand eta Animac jaialdiekin elkarlanean, hainbat ikus-entzunezko ziklo antolatu ditu. Hirugarren urtez jarraian, Miarrizteko FIPA jaialdiak eta Clermont-Ferrandeko Nazioarteko Film Labor Jaialdiak euren tokia izango dute Tabakaleran. Jaialdia urtarrilaren 26tik 31ra egingo da eta sail esperimentaleko edukiez gozatzeko aukera eskainiko du Tabakalerak. Bestetik, eraberritze lanak direla-eta, 2013an Tabakalerak ateak berriro zabaltzea espero da.

Buruko gaixotasunen gainean liburua idatzi zuen Andres Arriaga psikologo eibartarrak, 'Enfermedades mentales. Guía para todos los públicos', eta horren eta bestelako gaien gainean arituko da Portalean urtarrilaren 28an 19.00etatik aurrera. Gaixotasun mentalen gainean informatzera dator herrira bueltan Arriaga.

Elkarrizketa osoa
www.etakitto.com
webgunean

ANDRES ARRIAGA, psikologoa:

“Desinformazioa da aurreiritzi eta mesprezuen sustraia”

- **Liburuaren tituluak zehazten du publiko guztiari zuzenduta dagoela, baina ez da erraza izango printzipioz hain teknikoak diren gaiak denek ulertzea.**

Liburua saiatzten da zeini zuzenduta dagoen ez ahazten, eta iruditu zitzaidan teknizismoak gutxitzea ahalik eta pertsona gehienei heltzeko modurik onena zela.

- **Buruko zein gaixotasun jorratzen duzu liburuan?**

Depresioa, nahaste bipolarra, antsietate orokorrak, ikara arazoak, gizarte fobiak, anorexia, bulimia, eskizofrenia, psikopatia, nartzisismoa, piromania, ludopatia, parafilia sexuala, etab.

- **Zein da liburuaren helburua? Zergatik idatzi duzu?**

Irakurtzen duen horren jarrera aldatzen laguntzea eta publiko guztiari zuzentzea da helburua. Jarrera jokabidearen aurreko pausoa da eta ikusten badugu gure jokabideak ez direla guztiz 'maitagarriak' errealitatearekiko (gaixotasun mentala, adibidez), interesgarria litzateke jarrerak aldatzea beste batek informazio zuhurra eman digulako. Aho-korapilo bat ematen du, baina irakurleari informazioa ematen saiatzten naiz honek onena uste duena egiteko eta irakurri duena ez dela alferrikakoa izan

sentitzeko. Inguruko pertsonen psikopatologiaren gaineko terminoak nahasten zituztela sentitzen nuelako, hedabideek gaixotasun mentalen gainean informatzerako orduan akats kontzeptualak egiten zituztelako, eta besteen portaera inongo irizpide eta epaiketa ahalmen barik epaitzen duen jendea dagoela somatu dudalako idatzi dut batipat. Mesprezu eta aurreiritzien sustraia desinformazioa da, ezjakintasuna. Ezjakintasunaren aurka, informazioa.

- **Jendea behar den bezala eta behar denean joaten da profesionalengana?**

Uste dut gero eta erabilpen egokiagoa egiten dela, baina leku askotatik esplika daitezkeen ohitura txarren herentzia

1990eko irailean joan nintzen Eibartik. Urduri nago hainbeste urtetan ikusi ez dudana jendearen aurrean

herrestan daramagu (erlijioa, gizarte-presioa, zer esango duten hori...). Osasun mentalaren profesional batengana jotea kardiologo edo fisioterapeuta batengana jotzea be-



zain aipagarria izan beharko litzateke. Bide onean goaz, zorionez.

- **Uste duzu jendeak badaukiela zertaz berba egiten duen gaixotasun mentalen gainean ari denean?**

Esaldi zuzenagoak entzuten dira gutxika, akats murritzagokoak. Hala ere, akats asko egiten dira. Ez dago argi estres eta antsietatearen arteko ezberdintasuna edo arazo bipolar eta umore aldaketa berrituz baten artekoa. Ehundaka berba txarto esaten dira eta astakeria handiak entzuten dira.

- **Zeintzuk dira, gaur egun, buruko gaixotasun ohikoenak izan daitezkeenak?**

Antsietate eta depresioaren gainekoak seguraski. Ikara arazo eta antsietate orokorraren kasu asko diagnostikatzen dira, eta depresioa gurea bezalako herrialdeetan laneko bajen bigarren kausa nagusia bihurtu da. Izugarria da gaixotasun biren hauen sintomak leuntzeko psikofarmakoetan gastatzen den diru bolumena. Dena dela, beti galdetzen diot neure buruari ea orain gaixotasun ge-

hiago dagoen edo orain, horien gainean ezagutza gehiago egotean, gehiago dakien jendeak.

- **Badago 'modan' dagoen buru-gaixotasunik?**

Sasoiaren arabera beti dago 'modan' gaixotasunen bat. Egia da azken aldirian umeen hiperaktibitate arazoa gaindiagnostikatu egiten dela.

- **Hilaren 28an hitzaldia eskainiko duzu Portalean. Liburua soilik jorratuko duzu edo haratago joango zara?**

Haratago joango naiz jendeak interesa erakutsi eta galderak egiten dituen heinean. Horrela izatea gustatuko litzaidake. Duela gutxi diseinudrogen ondorioei buruz berba egiten amaitu nuen ordu baino gehiagoz.

- **Denbora dezente daramazu Eibartik kanpo. Berezia izango da zuretzat hitzaldi hau?**

1990eko irailean joan nintzen Eibartik, ia 20 urte! Bai, oso berezia, oso urduri nago ez nagoelako familia, lagun edo hainbeste urtetan ikusi ez dudana jendearen aurrean berba egitera ohituta.



Durango nagusi Eibarko rugbilarien aurrean Urrezko Kopan

ASTEBURUAN DURANGON JOKATUTAKO NEURKETAN, EIBAR HIERROS ANETXEKOEK AMORE EMAN behar izan zuten (26-15) bizkaitarren aurrean. Bombak, Lolok eta Wallyk bihurtutako entseguak ez ziren nahikoa izan durangotarrek eskuratutako lauren aurrean. Eraitza horrekin, bizkaitarrek egingo dute aurrera Urrezko Kopan eta eibartarrak, bitartean, hilaren 30-31ko asteburuan aurkari zuzena den Getxoko taldeari egingo dio aurre Ligan.

Nesken taldea ikaste prozesuan

Talde sortu berria ez da edozein irakaslerekin konformatzen eta, azken lehian, Getxo izan dute aurrean. Eraitza ere argia izan zen bizkaitarren alde (zeozergatik dute Europa mailako jokalaririk onena eurekin), baina eibartarrek gogotsu jardun zuten, entsegu bat bestearen atzetik jaso zuten arren.

Gol batek eman zien garaipena waterpoloko talde bie

WATERPOLOKO URBAT-URKOTRONIK-EKO SENIOR MAILAKO TALDEAK 7-6 irabazi zion Leioa B taldeari zapatuan Orbean jokaturako neurketan. Eraitza horrekin, eibartarrek postu bat aurreratu dute. Domekan, bestalde, jubenil mailako taldea garaile etorri zen Hernanitik, bertako taldeari 12-13 irabaziz.

Urbat-ek hiru talde ditu gaur

egun (senior, jubenil eta kadete-infantil mailakoak) eta, hurrengo denboraldiari begira, nesken taldea ateratzeko asmoa dute. Zapatuan 15.00etan jubenilek CW Navarraren aurka jokatu beharreko partiduen aurretik, entrenamendu-partidua jokatu da modalitate hori probatzea nahi duten infantil, kadete edo jubenil mailako gazteekin.



Alboko jokalaria berria Arraterentzat

HOGEI URTE EGIN BERRI DITU MONTENEGROKO BOGDAN PETRICEVIC

Arratek egin duen azken fitxaketak. Bertako Lovcen Cetinjek taldeak lagata dator eta datozen bi denboraldirako fitxatzeko aukera izango du Eibarko taldeak. Ezker alboko eta zentral postuetan jokatzeko gai da eta, kadete eta jubenil mailatan Serbia-Montenegrorekin jokatu ondoren, independentzia lortu zuenetik Montenegroko selekzio absolutoan jokatzeko dihardu.



Nagusu Bidasoaren aurrean

Martitzenean Irunen jokaturako lagunarteko norgehiagokan, Julian Ruizen mutilek erraz nagusitu zitzaizen Bidasoakoei. Arratek Cutura, Törö eta Tokic gabe jokatu zuen, baina hala ere argi erakutsi

zuen talde bien artean gaur egun dagoen aldea. Azken eraitza 18-38 izan zen eta Cid eta Harsany izan ziren goleatzaile nagusiak, 7 golekin; Moyua ordezkoko atezainak penalti bi gelditu zituen.



Deportiboko pilotariak Arrateko frontoian, Caelo Memorialaren edizioan.

Etxaniz-Bengoetxea bikotea gaur Astelenan

DEPORTIBOKO ORDEZKARIEN BIKOTEAK IGELDOKOEN

AURKA LEHIATUKO DIRA GAUR arratsaldean, aurreko jardunaldian Azkoitian nagusitu eta gero. Neurketa berezia izan zen azken hori, Bengoetxeak aurrean jardun behar izan zuelako eta, Egaña atzelariak bi eskuak minduta zituenez, partiduen zama bere bizkar gain hartu behar izan zuelako. Hala ere, 22-11 nagusitu ziren eibartarrak. Hori izan zen eibartarren garaipen bakarra, Astelenan jokaturako beste bi neurketetan Unamunzaga (10-22 galdu zuen Andoaingo ordezkariarekin) eta Hidalgo-Alvarez (6-22 Lazkaokoen aurka) galtzaile izan baitziren.

Lau lehenen arteko lehia foballeko 2. A mailan

EIBAR FOBALL TALDEAREN LEHEN EKIPOAK PALENTZIAKO LA BALASTERAN JO-KATUKO DU domekan, 17.00etatik aurrera; eta, handik gertu, Ponferradinak azken aldian multzoko talde indartsuena dirudien Lugo hartuko du. Sailkapeneko lau lehenen arteko lehia ikusiko da, beraz, asteburuan eta gauzak, argitzen joan daitezkeen moduan, gero eta estuago ere geratu daitezke. Partidu horretarako, eibartarrek hainbat baja izango dituzte: zigortutako

Lombraña eta Faliri, Valín eta Samuel lesionatuak gehitu behar zaizkie.

Eibar-Athletic Ipuruan San Blas egunean


Otsailaren 3an Eibar eta Athletic-aren arteko partidua jokatuko da Ipuruan, 20.00etan hasita. Partidu horren aurkezpena gaur eguerdian ziren egitekoak, 13.30etan, eta ekitaldian Fernando García Macua bilbotarren presidentea Alex Aranzabal Eibarkoarekin izango da.



Cuevas aurrelaria, lesioa sendatuta, prest dago taldearekin jokatzeko.

Asteburu tristea xakelarientzat

IAZ MAILAZ IGOTA, AURTEN DENBORALDI GOGORRARI EGIN BEHARKO DIOTE DEPORREKOEK. Horren proba izan zuten talde biek denboraldiko lehenengo jardunaldian, biak ere euren lehiak galduta. Bihar Euskal Ligako taldeak Sestaon jokatuko du eta Gipuzkoako 1. mailakoak etxean Mutrikuko Txaturangarekin. Azitaingo III. San Anton txapelketan, Haritz Garro izan zen garaile, Olabe eta Freireren aurretik. Bestalde, Jose Luis Amado taldeko jokalarioria hil zen, 57 urterekin.



Olabe, Gipuzkoako txapeliduna jubeniletan.

Hilaren 29an Deporreko batzar nagusia

DATORREN ASTEKO BARIKAKUAN EGINGO DA KLUB DEPORTIBOKO URTEROKO batzar nagusia. Klubaren lokaletan egingo da aipatutako bilera, arratsaldeko 20.00etatik aurrera, honako gai-ordenarekin: 1) aurreko aktaren irakurtze eta onartzea; 2) presidentearen txostena; 3) kontuen gorabeherak; 4) bazkideen gorabeherak; 5) zuzendaritza karguen berritzea; eta 6) galdera eta eskariak. Bestalde, klubeko presidentearenarekin batera, mendi, pilota, xake-joko, leize-ikerle, urpeko eta atletismo batzordeetako batzorde-buruetako postu edo karguak bete beharko dira.



Urte osorako mendi irteerak zehaztuta Deporreko egutegian

KLUB DEPORTIBOKO MENDI BATZORDEAK KALERATU DU DAGOENENKO urte osorako mendi irteeren egutegia eta, horrela, aurreko asteburuan Saibigainera (940 metro) egindakoaren ostean, otsailerako beste bi dituzte zain: hilaren 6an Okinatik Maeztura (tartean, 1.177 metroko Kapildui gainarekin) egingo dutena eta, handik aste bira -hau da, hilaren 20an-, Andoaindik Usurbilera egin beharrekoa, 562 metroko Andatza gainarekin. Irteera guztiak zapatuetan egiten dira eta, horietan parte hartzeko, klubeko bulegoetan eman daiteke izena.

Areto-foballeko Asador Azitain igoera postuetan sartu da

SAILKAPENENKO HIRUGARRENARI BERE ZELAIAN 5-8 IRABAZIZ, Asador Azitain jubenil mailako taldeak aurrerapauso handia eman du eta bide zuzena daramala erakutsi du beste behin. Garaipen horrekin, sailkapeneko 4. postuan kokatzen dira eibartarrak eta domekan Azpeitiko sailkapeneko azkena hartuko dute Ipuruan. Horrez gain, eta martxa onaren seinale, 20 urtetik azpiko Euskadiko selekzioak Alex Alonso eta Mikel Garrido deitu ditu eurekin parte hartzeko lurraldeetako selekzioen arteko Espainiako txapelketan.



Mikel Garrido eta Alex Alonsok, jubenilak izanda ere, Concepto Createch talde nagusian debutatu dute.

Arrateko auto igoera uztailaren 2-3an

EUSKAL TXAPELKETAKO ETA MENDIKO ESPAINIAKO TXAPELKETAKO EGUTEGIAK KALERATUTA, Arrateko Auto Igoera uztailaren lehenengo asteburuan azaltzen da jokatzeko. Escuderia Eibarrek "modu bikainean" (horrela diote federazio guztietatik) antolatzen duen mendi lasterketa uztailaren lehenengo asteburuan jokatuko da; hori izango da, gainera, Espainiako txapelketarako baliagarri izango diren sei probetako bat, krisiak eraginda bertan behera geratu baitira beste hainbat proba (beste proba bi, Totanako eta Ibizakoa, zalantzan daude).

Zer diote Euskal Herriaz estatu espainiarreko hedabideek? Hortaz aritu da, gehien bat, Javier Vizcaino 'Mas que palabras' saioan Radio Euskadin hainbat urtetan. Horren izena, 'Cocidito Madrileño'. Irratitik, hala ere, antzerkira egin du salto eta gaur izango da ikusgai Coliseoan 20.15etan eta 22.15etan.



JOSEAN BENGOTXEA, aktorea:

"Hemendik at nola ikusten gaituzten erakusten dugu"

- 'Cocidito Madrileño' irratia da bera. Estetikoki badauka zerikusirik irrati saioarekin.

- Barre egiteko antzezlan da, baina bertan esaten direnak, benetan esandakoak izanda, nahiko gauza serioak dira. Nolabaiteko kritika egiten duzue esandako gauza horien gainean?

- Hasi aurretik arrakasta izan duzue jada Eibarren; izan ere, bigarren saioa egin beharko duzue sarreren eskaera handiarengatik.

- Zein papel jokatzeko duzue antzezlanean?

- Irratian esandakoa entzungo da hemen ere?

- Irrati saioaren esentziari erusten diozue?

Estetikoki badauka zerikusirik irrati saioarekin. Ez zehazki; jendeak egin beharko luke kritika hori. Guk erakusten diegu hemendik kanpo nola ikusten gaituzten eta nolakoak esaten dituzten.

Joan zen egunean komentatu ziguten. Gusto handiz egingo dugu bigarren saioa. Momentu latza bizi da antzerkigintzaren munduan eta antzezlan honekin ikus-kizun guztietan bete da antzerkia. Fenomeno bezala hori du antzezlan honek eta, bestetik, antzerkira joateko ohitura ez duen jendea ere gerturatzen du.

Bai. Gero eta ile gutxiago daukat buruan; beraz, izan dut aukera aurretik Eibarren aritzeko. Esperientzia ona izan zen.

Bai. Gero eta ile gutxiago daukat buruan; beraz, izan dut aukera aurretik Eibarren aritzeko. Esperientzia ona izan zen.


Bai. Gero eta ile gutxiago daukat buruan; beraz, izan dut aukera aurretik Eibarren aritzeko. Esperientzia ona izan zen.

Bai. Gero eta ile gutxiago daukat buruan; beraz, izan dut aukera aurretik Eibarren aritzeko. Esperientzia ona izan zen.

Bai. Gero eta ile gutxiago daukat buruan; beraz, izan dut aukera aurretik Eibarren aritzeko. Esperientzia ona izan zen.

Bai. Gero eta ile gutxiago daukat buruan; beraz, izan dut aukera aurretik Eibarren aritzeko. Esperientzia ona izan zen.

Bai. Gero eta ile gutxiago daukat buruan; beraz, izan dut aukera aurretik Eibarren aritzeko. Esperientzia ona izan zen.



Aratosteetarako ideiak liburutegian eskuragarri

DATORREN HILEAN ARATOSTEAK OSPATUKO DITUGULA ETA, Juan San Martin Liburutegiak koko-jazten laguntzeko erabilgarriak izan daitezkeen liburu eta aldizkariak interesgune batean pilatu ditu, Umeen Liburutegian: besteak beste aratoste makillaje eta koko-jantzien inguruko dozena bat liburu eskaintzen dituzte, jantziak egin ahal izateko patrioiak dituzten 30 bat aldizkariarekin batera. Kapelak eta maskarak egiteko material espezifikoak ere agertzen da bertan. Liburutegiko arduradunek azaldutakoaren arabera, liburu hauetarako mailegu politika ohikoa da (15 egun); aldizkarietako dago-kienez, bi egunetarako eraman daitezke, baina irakurle-txartela liburutegian bertan lagata.

Bide batez, gogoan izan hilaren 29ra arte liburutegiak ordutegi berezia izango duela, azterketak prestatu behar dituztenei zerbitzu hobea emateko asmoari jarraituta: astelehenetik barixakura 09.00etatik 20.30etara egongo da liburutegiko zerbitzuak erabiltzeko aukera eta asteburu eta jai-egunetan ohiko ordutegian (10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 20.00etara) zabalduko dute.



Krisiaren kontrako kartela nagusi

BESTALDE, ARATOSTEETARAKO KARTELA AUKERATZEKO ANTOLATUTAKO LEHIAKETA MIRIAM AZPILIKUETA Dominguez 23 urteko gazteak irabazi du, "Krisiaren kontrako mozorroak" izenburuko lanarekin. 11 eta 14 urte bitartekoen artean, berriz, Aitor Casaña Angoitiaren "Etxe zoroa" lana saritu dute eta 10 urtera artekoen mailan Iruñe Fariñas Argoitiak aurkeztutako "Gorbatadun pailazoa" izenburuko kartelarentzat izan da saria. Aurtengo edizioan 20 lan lehiatu dira nagusien mailan, 12 tarteko mailan eta txikiaren mailan, berriz, 44 lan jaso dituzte.



Udal Artxibo berrirako egindako beharrek milioi bat euroko aurrekontua izan dute. / SILBIA HERNANDEZ


Udal Artxiboaren inaugurazio ekitaldia

AURREKO BARIKAKUAN INAUGURATU ZUTEN AZAROAZ GEROZTIK UDALETXEKO LAUGARREN SOLAIRUAN martxan dagoen Udal Artxibo berria, agintarien zein beste hainbat gonbidaturen parte-hartzea izan zuen ekitaldian. Miguel de los Toyos alkateak *“gure herria izan denaren inguruko erreferentzia historikoa”* ezagutzeko artxiboak ematen duen aukeraren garrantzia azpimarratu zuen. Antonio Rivera Kultura sailburuordeak, berriz, ekitaldia aprobetxatu zuen betidanik Eibarko herriak izan duen *“kontzientzia historikoa”* goraiatzeko.

Artxibo berriak ia 958 metro karratuko azalera betetzen du eta Bosark arkitektura enpresa eibarrak garatu du. Beharrek milioi bat euroko aurrekontua izan dute eta hortik 370.000 euro Eusko Jaurlaritzak ordaindu ditu. Instalazio berriak eskaintzen dituen aukeren artean, besteak beste, honakoak aipatu daitezke: agiriak sailkatuta gordetzeko lau biltegi, klimatizazio-gune independentekin, kontsulta eta ikerketarako 240 metro karratuko gunea, horrelakoetan lagungarria izan daitekeen liburutegi txikia eta aldi baterako erakusketak hartzeko moduko 112 metro karratuko gunea.

Giro paregabea danborradaren kontzertuan

URTEROKO MODUAN, SAN SEBASTIAN EGUNA GOGOAN IZAN DUTE USARTZA TXISTULARI BANDA KOEK eta, horren harira, danborradaren kontzertua eskaini zuten domekan Coliseoan, Cielito



MAIALEN BELAUSTEGI

Musika Bandaren eta Eibarko Danborradaren danborrek eta barrilek lagunduta. Jose Miguel Laskurainek zuzendutako kontzertuan Eibarko eta inguruko herrietako danborradetako pieza ezagunak eskaini zituzten.

laburrak

SAN JUAN BOSCO

Zinema-operatzaileek eta zine aretoetako beharginek San Juan Bosco euren patrioiaren eguna ospatuko dute urtarrilaren 30ean, 13.30etan Batzokian (Ego Gain, 4) hasiko den bazkariarekin. Antolatzaileek arlo horretan beharren dihardutenei zein inoiz jardundakoei dei egin nahi diete, bazkaria joateko. Interesa dutenek hilaren 28ra arte izango dute izena emateko aukera, 945201910 telefono zenbakira deituta.

BIDEO-EMANALDIA

Eguaztenean bideo emanaldia eskainiko dute Tallarra gaztetxean, 19.00etatik aurrera: *“Permakultura, eraikuntza ekologikoa”*. Eta hilaren 30ean (zapatuan) kontzertua emango dute Plan B eta Klavo Oxidado taldeek, 22.30etatik aurrera.

ATZEGI-RI LAGUNTZEKO ERAKUSKETA

Aurreko asteburuan zabaldu zuten Untzaga jubilatuetan herriko hainbat artistaren koadroekin osatutako erakusketa berezia: Atzegi adimen urritasuna dutenen elkarteak sortu zela mende erdia betetzen da eta artistek emandako lanekin tonbola modukoa egingo dute, elkarteak garatzen dituen jardueren gastuei aurre egiten laguntzeko dirua batzeko asmoarekin.

IDOIA ASTIZ ASTIGARRAGA 2008-1-23

BI URTE badituzu joan zinela hemendik isil-isilik, baina hemen gauden bitartean EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO.

Bere aldeko MEZA egingo da **urtarrilaren 23an, 19.00etan,** San Andres parrokiari



San Anton jaiak giro onean

AURREKO ASTEBURUA JAI GIROAN MURGILDUTA EMAN ZUTEN AZITAINGO BIZILAGUNEK zein bertara gerturatukoek, San Anton etxe zein baserrietako animalien babeslea gogoan. Zapatuan kirol-txapelketek osatu zuten egitarauaren ardatza, umeendako prestatu zituzten jokoekin batera. Azitaingo Jai Batzordeak antolatutako jaiaren parte hartu zuten guztiek, gainera, hamarretakoa elkarrekin hartzeko aukera izan zuten, Azitaingo eliza



inguruan. Auzotarrek 15 kilo txorizo egosi eta pintxotan banatu zituzten, edate-

koarekin lagunduta. Domekan, berriz, meza herrikoiairen ondoren nagusiei omenaldia eskaini zieten eta, jai-egutegiari hasiera ematen dioten jaiak agurtzeko, Kezka dantza taldekoen erakustaldia eta hainbat opariren zozketa egin ziren.



Lagun Taldearen emanaldi bi

URTERO LAGUN TALDEA ADIMEN URRITASUNA DUTENEN ALDEKO ELKARTEAK ES-KAINTZEN DUEN JAIALDIAK izaten duen arrakasta dela eta, iazko moduan aurten ere egun bitan eskainiko dute ikuskizuna: lehenengo emanaldia bihar (zapatua) izango da, 17.30etan Hezkuntza Esparruko aretoan (sarrerak euro bat balio du) eta datorren zapatuan (hilaren 30ean) toki eta ordu berean taularatuko dute ikuskizuna berriz ere. “¡Y yo con estos pelos!” izenburuko ikuskizuna ileapaindegi bateko gorabeheren inguruan prestatu dute eta taula gainean orotariko pertsonaiak pasatuko direla aurreratu digute antolatzaileek.



Afalosteko tertuliak Montekasinon

ZUZENKO PARTE-HARTZEA ETA HARREMANAK OINARRI, “AFALOSTEKUA” IZENEKO PROIEKTUA jarri nahi dute martxan Montekasino tabernan. Proiektuaren arduradunen berbetan, “*eibartarrok beti izan dugu edozein gairen inguruan eztabaidatzeko ohitura, baina gero eta gutxiago dira horretarako ditugun aukerak. Apurka-apurka gure artean berba egiteko ohitura galtzen gabiltza. Gauzak horrela, ezinbestekoa da eztabaidarako eta hausnarketarako aukerak sortzea, gaia edozein izanda ere, mahai baten bueltan bildu, eta lagun arteko giro lasai-apalean iritzia ematea eta entzutea*”.

Asmoa, afalosteko elkartu eta, ondoren, pilpilean dauden gaien gainean berba egitera animatuko den jendea elkartzea da. Horretarako lehenengo saiakera hilaren 28an (eguna) egingo dute, 20.30etan Montekasino tabernan bertan, “*orduan elkartuko garenek parte-hartzearen inguruan gure iritzia emateaz gain, kezka eta interesa sortzen dizkiguten gaiak proposatzeko aukera ere izango dugu, gero afalostean lantzeko*”. Parte hartu nahi duenak urtarrilaren 26a baino lehen eman beharko du izena Montekasino tabernan, bertara joanda edo 943254113 telefono zenbakira deituta.


EUSKARAREN

EUSKARA HUTSEZKO 50.000 ARTIKULU. Marka berria gainditu berri du Euskarazko Wikipediak, euskara munduko 45. hizkuntza izanik marka hori gainditzeko. Hizkuntza bakoitzaren artikulua eta hiztun kopuruari erreparaturaz, euskarazkoa da koefiziente onenetakoa duen bertsioa. Entziklopedia askea sortzeko proiektu xume hori gaur egun munduko seigarren webgune bisitatuenetako da. Irekiera ofiziala 2003. urtean egin bazen ere, 2001eko abenduan sortu zen euskarazko Wikipedia eta “Lurra” izan zen lehenengo artikulua: erabiltzaile bi izan zituzten orduan; gaur egun, ostera, 566. Lehen 1.000 artikulua sortzeko bi urte-tik gora behar izan baziren, azken hiru hilabeteotan 5.000 artikulutik gora sortu dituzte euskal erabiltzaileek; hau da, eguneko artikulua bakarrik sortzen zen orduan, 60tik gora azken hilabeteotan. Wikiak sortzeko softwarerik erabiliena, gaur egun, Media-Wiki da: Wikipediak berak motore bezala darabilena, hain zuzen.

TXOKOA

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunaren bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, GORETTI, atzo bederatzirte egin zenduazena-eta. Jarraitu zaren modokua izaten. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, UXUE, hillaren 9xan urtebete egin zendualako. Laztan haundi bat osabaizebaren partez.




Zorionak, MIREN Belar Salado, hillaren 12xan urte bi egin zenduazena-eta. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta, batez be, Helenen partez.



Zorionak, ARKAITZ, martitzenian zortzi urte egin dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.





Zorionak, NORA, atzo urte bi bete zenduazelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, JOSEBE Hurtado, bixar hamar urte egingo dozuzelako. Famelixaren partez.



Zorionak, JORGE (hillaren 8xan egin zenduazena urtiak) eta MARIA (hillaren 25ian egingo dozuz), beste urtetxo bat betetzerakuan. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, GORKA, mutil haundi (hillaren 17xan zortzi urte bete zenduazena), eta IKER, txapeldun (hillaren 28xan zazpi egingo dozuz-eta). Muxu asko famelixako danon partez.



JAOTAKOAK

- Hassnae Azzi. 2010-I-10.
- Iradi Rubias Vega. 2010-I-11.
- Eneritz Garitaonandia Arakistain. 2010-I-12.
- Jules Martínez Sarasua. 2010-I-13.

HILDAKOAK

- Jesus Bildosola Arrizabalaga. 75 urte. 2010-I-14.
- Jose Luis Amado Fernández. 57 urte. 2010-I-17.
- Rosario Lili Kortaberria. 83 urte. 2010-I-17.
- Aniceto Gaubeka Armendariz. 74 urte. 2010-I-19.

zinea Coliseoan

22an, 20.30etan; 23an, 17.00, 19.45 eta 22.30etan
24an, 17.00 eta 20.00etan; 25ean, 20.30etan

"Rompedientes"

Zuzendaria: Mich. Lembeck
 Aktoreak: Dwayne Johnson, Julie Andrews, Billy Crystal, Ashley Judd...



Derek Thompson "Hortzetako Maitagarria" hockey jokalaria da, horrela deituta aurkariak hortz barik lagatzen dituelako. Gazte baten ametsekin amaitzen duenean, zigorra jasoko du: astebete osoa eman beharko du Maitagarriarena egiten...

"La herencia Valdemar"

Zuzendaria: J.L. Alemán
 Aktoreak: Silvia Abascal, Eusebio Poncela, Oscar Jaenada, Laia Marull...



Luisa Lorente aspaldiko etxeetako tasatzaile aditua da eta Valdemar luxuzko etxean desagertuko da. Maximilian bere nagusiak Nicolas Tremel detektibearekin kontratatuko du eta honek mende luzeko Valdemar legendari egin beharko dio aurre...

"¿Qué fue de los Morgan?"

Zuzendaria: Mark Lawrence
 Aktoreak: Sarah Jessica Parker, Michael Kelly, Hugh Grant, Seth Gilliam...



Paul eta Meryl arrakasta handiko bikoteak arazo bakarra du: euren artekoa amaitzekotan dago. Hilketa baten lekukoak izango dira eta soldatepeko hiltzaile baten helburu bihurtuko dira. Horrek euren harremanean eragingo du ...

Ego Ibar

"Vals con Bashir"

Zuzendaria: Ari Folman
 Aktoreak: Ron Ben-Yishai, Ronny Dayag, Ari Folman, Dror Harazi...



Gau batean lagun zahar batek Ariri kontatzen dio askotan izan duen amesgaiztoa: 26 txakurrez osatutako taldeak jarraitzen dio. Israelek Sabra eta Chatilan egindakoaren misioarekin zerikusia duela jabetuta, berarekin bertan egondakoekin batuko da...

horoskopoa

ARIES

Buruan bueltaka dituzun hainbat kontu lehenbailehen argitu behar dituzu. Ez daukazu denbora askorik, baina ondo pentsatu beharko duzu.

TAURUS

Telebistan irudi gogorak ikusiz gero, hunkitu arren, handik minutu batera ahaztuta duzu ikusitakoa. Egizu zerbait beharra duten horiengatik.

GEMINI

Informazio freskoa, inork ez dakiena, izango duzu eskuan. Zer egin? Besteek kontatu? Izkutuan gorde? Ondo pentsatu ezer egin aurretik.

CANCER

Zuk ez al duzu urtarrileko aldapa igartzen? Bejon deizula, zuretako hobe! Ondo egingo duzu bide horretatik jarraitzen baduzu.

LEO

Zuk erabaki: irudimenezko lerroa igaro edo ez. Badakizu ez dagoela atzera bueltarik, beraz, kontu handiz ibili zaitez.

VIRGO

Betebehar gehiago zuretzako, baina, era berean, onura gehiago ere. Urteetan egindako lan gogoraren saria izango da zuretzat.

LIBRA

Konpainia onean ibiliko zara hemendik aurrera. Ez dut esan nahi lehenago konpainia ona ez zenik, baina oraingoarekin ezin zara kexatu.

SCORPIUS

Deabruarekin paktua egin duzula ematen du. Nola izan zaitezke hain ederra? Hobe duzu zure sekretua gordetzea, besteek ez kopiatzea.

SAGITTARIUS

Sasoi berria hasi da zuretzat, kolorez beteriko sasoi. Ahalegindu orain duzun zorion horri eusten, zure esku egongo da hori.

CAPRICORNIUS

Oso haserre sentituko zara gertuko pertsona batekin. Benetan min egingo dizun zeozer egingo du eta ez zaizu haserre egunetan pasatuko.

AQUARIUS

Beharpenak ederi aprobetxatzen dakien pertsona zara eta benetako eskaintza handi bat aurkituko duzu. Zorioneko zuz!

PISCIS

Besteen aholkuak entzutea ondo dago, baina ez zaitez tontolapikoa izan. Ez al duzu ikusten engainatu nahi zaituztela? Argi ibili!

Barixakua 22

ANTZERKIA
20.15 eta 22.15.-
 "Cocidito Madrileño 2".
 Coliseoan.

Zapatua 23

MANIFESTAZIOA
12.00.- ABC lantegiko beharginek deituta. Untzagatik hasita.

LAGUN TALDEA
17.30.- "¡Y yo con estos pelos!", Lagun Taldearen ikuskizuna. Sarrera: Euro bat. Hezkuntza Esparruan.


EIBARTARRAK TELEBISTAN
22.00.- Eibarko Koro Gaztearen aktuzioa ETB-1eko "Oh Happy Day" lehiaketan.



Domeka 24

KALEJIRA
11.00.- Usartza Txistulari Bandaren kalejira.

UMEENDAKO ZINEA
17.00.- "Lluvia de albóndigas". Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.



Martitzena 26

IKASTEN
10.00.- "Grandes tesoros de arqueología II", M^o José Noainen eskutik. EPAN (Isasi, 39).

Eguaztena 27

BAKEAREN ASTEA
11.30.- Bakearen Asteko ekitaldi nagusia. La Salle Azitainen.

BIDEAN EMANALDIA
19.00.- "Permakultura, eraikuntza ekologikoa". Tallarra gaztetxean.

Eguena 28

IKASTEN
10.00.- "Personajes Relevantes de la Real Academia Bascongada de Amigos del País", José M. Urkiaren eskutik. EPAN (Isasi, 39).

BAKEAREN ASTEA
15.45.- Bakearen Asteko ekitaldi nagusia. La Salle Isasin.

KALEETAN KANTUZ
17.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. S. Andres elizako lokaletan.

EGO IBAR ZINE KLUBA
17.30 eta 21.00.-
 "Vals con Bashir" (Zuz: Ari Folman). Hezkuntza Esparruan.

HITZALDIA
19.00.- "Enfermedades mentales. Guía para todos los públicos" liburuen aurkezpena, Andrés Arriaga egilearen eskutik. Portalean.



DENBORAPASAK

SUDOKUA

4			3	5	9		
			6	7			
				1			
	1	7		4			9
			1				7
8	4			9	1		
	2			3	4	5	1
1			7	4	8		
			5		6	9	7

3	6	9	2	5	7	8	4	1
1	4	5	9	8	3	2	6	7
7	2	6	6	4	1	5	9	3
9	8	2	5	1	6	3	7	4
4	7	6	3	2	8	9	1	5
5	1	3	4	7	9	6	2	8
8	5	4	1	6	2	7	3	9
2	9	7	8	3	4	1	5	6
6	3	1	7	9	5	4	8	2

AURREKOAREN EMATZA



erakusketak

- Urtarrilaren 24ra arte
GURUTZE MUJIKAREN margo erakusketa. *Topalekuan.*
DURANGALDEKO ARTISTEN Elkarteko en erakusketa. *Portalean.*
- Urtarrilaren 31ra arte
Eibarko Klub Deportiboko **ARGAZKI TALDEAREN** erakusketa. *Portalean.*
GORKA VICENTEren argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
AITOR AULESTIARTEren "Begiradak". *Depor tabernan.*
FREDERIC GARRIDOren "Nindas". *El Ambigú tabernan.*
Hainbat artistaren **ERAKUSKETA-TONBOLA**. *Untzaga Jubilatatu Etxean.*



MUSIKA:
Piano Jaialdia.
Urtarrilak 31, 12.00.

ikastaroak

- **Sendian programa (adineko ezinduak zaintzeko).**
Noiz: Otsailaren 2, 3, 4, 5 eta 8an, 15.00etatik 17.00etara, Portalean (ikastaro gelan).
Lzen-ematea: Urtarrilaren 29ra arte, Pegoran (doan).

lehiaketak

- **Antzez Artikulu eta Gidoientzako Narruzko Zezen Sariak.**
Lanak aurkezteko epea: Urtarrilak 22ra arte, Hezkuntza Esparruan. Informazioa: eibarres@terra.es
- **3D Counter Strike.**
Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 5era arte. Informazioa eta materiala: www.iesunibhi.com
- **Industriagintzari buruzko IV. Argazki Lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 26a. Informazioa: Armeria Eskolan, aaa@armeriaeskola.com
- **XX. T. Etxebarria Sariak.**
Lanak aurkezteko epea: Urtarrilaren 28ra arte. Informazioa: www.bicberrilan.com

farmaziak

- 22, barixakua**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 23, zapatua**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 24, domeka**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 25, astelehena**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 26, martitzena**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 27, eguaztena**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 28, eguena**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 29, barixakua**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.50 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.50, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaiegunak: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.50 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaiegunak: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaiegunak: 12.50 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdire). Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 06.50-etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55-etatik 21.55-etera orduerdire. Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Lanegunak: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Ipuruan, J.A. Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukaldia des-pentsarekin, komuna eta trasteroa. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 661-291898 edo 610-603631.

– Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berriztua. 25.000.000. pta. Tel. 659-687736.

1.2. Errentan

– Pisua alokatuko nuke Eibarren. Tel. 943-208178 edo 629-976131.

– Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 636-430546 edo 646-048823.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2 edo 3 logelakoa. Tel. 608-975207. Laurin.

– Pisua hartuko nuke alokairuan (ganbara), lagun batendako modukoa. Tel. 678-150053 edo 609-248845.

– Logela alokagai lagun bakarrarentzako. Tel. 688-618959.

– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Logela bat edo bi. Tel. 688-618959.

– Urkizuko Orbeako dorreetan pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldia eta komun bi. Tel. 943-702672 edo 600-657196.

– Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 666-784526.

– Eibarren pisu txikia hartuko nuke alokairuan, San Andres ikastetxe inguruan. Tel. 628-789789.

– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 943-254063.

– Eibarren pisua alokagai, bariantetik gertu. 3 logela, egongela, sukaldia-jangela eta komun bi. Eguzkitsua. Handia. Tel. 943-201294 edo 645-728317.

3. Lokalak

3.2. Alokagai

– Garaje itxia Abontzan alokagai. Tel. 615-712216.

– Garaje itxia alokagai Estaziño inguruan. Labaderoarekin. Tel. 610-395630.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Tel. 639-020180 edo 686-274490.

– Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 689-436454.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Tel. 669-966611.

– Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. Tel. 608-886701.

– Gizona eskaintzen da igeltsero edo banatzaile lanerako. Tel. 650-513412.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketak egin edo tailerretan lan egiteko. Tel. 685-761979.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketak egin edo tailerretan lan egiteko. Interna edo externa. Tel. 635-313375.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 672-203675.

– Emakumea eskaintzen da garbiketa lanerako: etxeak, eskilarak, pegorak. Tel. 653-010861.

– Mutila eskaintzen da sukaldia-laguntzaile, igeltsero, biltegian lan egiteko edo banatzaile moduan. Tel. 943-530795 edo 638-344377.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 646-394857. Celia.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Arratsaldeko 17.00etatik goizeko 10.00etara. Tel. 662-247584.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Interna edo externa. Gerontologia eta psikologia. Tel. 635-313375.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Esperientzia. Tel. 655-384877.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 943-171583 edo 608-474923.

– Neska eskaintzen da zortzi orduko lan baterako. Tel. 685-761979.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 664-838002.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Geriatriko ikastaroa eta esperientzia. Tel. 646-235195.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Esperientzia. Tel. 690-296857.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 675-007271.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanerako. Interna edo externa. Tel. 672-224941.

– Neska eskaintzen da arratsalde eta asteburuetan lan egiteko. Tel. 636-383471.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanerako. Tel. 663-786976.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 681-117532.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 646-180072.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak gaez zaintzeko, umeak zaintzeko eta garbiketa lanerako. Tel. 686-435056.

– Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 660-279131.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak gaez zaintzeko, umeak zaintzeko eta garbiketa lanerako. Tel. 656-493864.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Tel. 638-513253.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Externa. Tel. 687-904737.

– Gizona eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 690-156040.

– Erizaintza laguntzailea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. 22.00etatik 15.00etara. 20 urteko esperientzia. Tel. 610-936839.

– Gizona eskaintzen da igeltsero, elektrizista edo nagusiak zaintzeko. Tel. 686-274490.

– Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 687-114707.

– Mutil euskalduna eskaintzen da edozein lanerako. Karneta eta autoarekin. Tel. 669-208466.

– Klinika eta Pediatría laguntzaileak nagusiak edo umeak zainduko lituzke. Tel. 660-323761.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 638-520765.

– Neska eskaintzen da umeak zaindu edo garbiketa lanerako. Tel. 664-111706.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanerako. Tel. 630-404538.

– Neska eskaintzen da asteburuetan edo arratsaldetan kamarera moduan lan egiteko. Tel. 619-445652.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 649-008036.

– Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 616-397348.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 648-505985.

4.2. Langile bila

– Kamareroa behar da Eibarko erdiguneko taberna batean. Tel. 616-100947.

– Kamareroa behar da Deporren asteburuetarako. Deitu 11.00etatik 23.00etara. Tel. 943-207044.

– Kamareroak behar dira Arraten asteburuetarako. Autoarekin. Tel. 677-638184.

– Estetizista behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Tel. 943-531636.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Txintxilak salgai jende arduratsuenentzat. Hilabete eta erdikoa bata eta hilabete bikoak bestea. Tel. 943-203205.

– Alpes 250 neguko abantzea salgai. Behin erabilia. Tel. 943-019864.

– Maxicosi kotxea, kapazoa eta aulkia salgai. Bebe confort urdin iluna. "Silla bastón" eta trona. Tel. 617-256466.

– Koltxoia salgai (1,50 x 2,00). Tel. 628-573781.

6.2. Eman

– Josteko makina oparitzen dut. Tel. 943-121215.

BARRAN, betiko pintxoez aparte, bertako produktuekin egindako TALOA txorizoarekin eta ODOLOSTEA daude.



JANGELAN:

Eguneroko **MENUA**
(14 euro, BEZ barne).

Asteburuetakoa

- barixaku gauecik domeka eguerdira -
(33 euro, BEZ barne).


Horrez gain, norberaren poltsikora egokitutakoak eskatu daitezke.

KARTA sasoian sasoiko produktuekin.



BODEGA OSOTUA,
poltsiko guztietarako moduko ardoekin.

40 lagun ingururako
JANGELA
ordutegia
13.00-15.15
21.00-22.00
TABERNA
08.00etatik
aurrera zabalik
(asteburuetan 11.00etatik)



SARRERA EGO-GAINETIK.
Elbarrituendako egokituta.



aukera berria

Betiko sukaldaritza oinarritzat hartuta, baina berrituta.



EIBARKO BATZOKIA
Ego Gain, 1 - behea

Tfnoa. 943 25 72 80
www.baibatzoekia.com

ba
tzo
ki

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak




Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK